

## NON DAGOZ NIRE ARDIAK?

Gaizka Amondorain

*Arantzazu, 13 urte*

Negua hasia zan. Baetozan denboraldi hotzak. Otsailaren lehena hasi barria. Baltzola bidean egoan auzoan, Txoritxe izenekoa, Errota zahar baserrian bizi zan Unai. Txala urte osoan loditu eben eta gaur beronen hilketa eguna da. Unaik ez eukan ha ikusteko gogorik eta txakurragaz Baltzola ingurura abiatu zan, bertan eukazan ardiak eta. Bide ha ez eban lehenengoz egiten, egunero ikastolatik urten eta bazkal aurretik joaten zan eta. Bidea luzea zan, baina ederra.

Bajoian Unai txakurragaz, Bargundin, baserri baten parean egoan iturrian, ur tragu bat edan eta aurrera. Ez zan asko falta. Artaun eta Oba ikusten ziran eguneroko bide haretatik. San Lontxoko ermitara heldu zan mezea amaitu barria zanean. Inguruko baserrietako andra-gizonak han egozan kontu kontetan.

—Hombre, etorri jaku gure Unai be! Berakatzza baino finagoa da gero! —esan eban Juanitak.

—Bai, banator ardiei begi bat botaten. Ah, Juanita, amak bihar goizean gure etxetik pasetako esan deust.

—Bai pasatuko naz, umea.

—Bueno ba, agur, banoa eta.

Bide osoan txistu eta txistu joian, Baltzola gane-ko larrera heldu arte. Han egozan bere ardiak. Aldean eban morraletik ogi zati bat atara eban

ardiei emoteko. Unai baldea lurrean jarri eta ardiak banaka-banaka deitu ebazan esnea batzeko. Balde bete esne eroaten eban etxera, berak bidean beste apur bat edanez. Edurra emoten eban esne harekin, gazta eta gatzatu ederrak egiten ebazan bere amamak.

Seietarako Unai etxean zan, esnea amamari emonaz.

—Nahikoa egin dozu gaurkoz, joan orain lagunengana, —amamak.

Errota zaharreko baserri guztien erdian egoan plaza antzekoan aurkitu ebazan bestea.

—Zer Unai, bazatuz gugaz mizperuak jaten? —galdetu eutson batek.

—Alberton baserrira?

—Bai, bertara.

Han joiazan danak batera. Iluntzea zan, neguan arin iluntzen dau eta. Bestalde, neguan ez zan fruturik arbolatan eta ezin betekadarik egin besteen kontura.

—Han dagoz Dimako mizperurik gozoenak portalean ustelduten, —esan eban batek.

Bakotxak patrikea ondo betetan eban.

—Zer zabizie hor ume madarikituok! —esan eban Albertok zarataka.

Hori entzun eta segituan urten eben korrika danak, erbi arinenak baino arinago, ezagutzen eben Alberto eta. Militar izandakoa eta bere aurpegia otsoak haurak be bildurtzeko modukoa.

Etxera joan eta morokila eta urdaia jan ebazan Unai afalduteko, eta ohera joan zan guztiz kantsatuta.

Goizean indartsu altxatu zan, kandelario egunean. Katilukada bat esne zopakaz jan ebazanean etorri zan Juanita.

—Egunon danori! —esan eban Juanitak.

—Egunon, bai! Ikusiko zendun behean txala siketan, ezta? Ba, gero, beherantzean emongo deustut okelea.

Unairen gurasoak okelea emoten eutsen ardiak heuren lurretan edukitearren.

—Bai, gero gerokoak. Barri bat dakart zuei esateko eta. Egunokaz, Baltzola inguruan ganadua faltan botaten dau jendeak eta otsoren bat dabilela edo esaten da. Zuei be faltatu jatzuez, ala?

—Ez, nik atzo danak kontatu nituen eta, —erantzun eban Unaik.

—Ba, hartu beharko da orduan!—Unairen aitak.

—Gizonak bihar doazela esan deust, —erantzun eban Juanitak.

—Gu be bertan izango gara orduan.

—Bueno ba, bihar arte orduan!

Unai pentsakor ebilen, han ez zan otsorik ikusi urteokaz eta.

Bazkalduteko amamak opila egin eban. Unai-  
rentzat hori uriko pastelik onena baino hobea zan. Artoa birrindu ostean, galbahetik pasatu eta azala bertan geratzen zan. Harekin egiten zan opila gerroago laban.

Bazkalostean, gurasoak bekanekoa bota eben, Unaik arrastirako kandelak prestatan ebazan bitartean, eta Juanitak kontatutakoari bueltak emoten eutsozan bitartean.

Zortziak ziren eta Dimako eleiz portalean ego-

zan danak, bakotxa bere kandelatxoagaz. Mezea amaitu eta etxera joan ziran segituan, kandelak sutondoan jartzeko. Hau espiritu txarrak uxatzeko egiten da. Gero ekaitza zanean kandelak iziotu eta erreztatu egiten zan.

Afalorduan aititak esaera zahar batzuk kontetan ziharduan;

«Urtarrila neguko maratila», «San Bixente hotza neguaren bihotza».

Unairi begiak zarratu egiten jakozan eta amak ohera joateko esan eutson. Goizean, ganera, indar beharra eban, otsoa hartu nahi baeban behintzat.

Besteak, aita-ama eta aitita-amamak sutondoan gelditu ziran atxineko usura, kikeratan kafea eta ilintiagaz edanez, atxineko kontuak kontetan.

Goizeko zazpiak ziran. Aitak Unairi deitu eutson, baina Unai itzarrik zan dagoeneko, arduraturik.

Arropa zahar batzuk jantzi eta armozuari ekin eutson. Aita kanpoan zan txakurrak soltetan eta eskopetea prestetan. Atoan urten eta aitagana joan zan.

—Zer, prest joateko? —aitak.

—Bai, —erantzun eban Unaik.

—Ondo armozatuko zendun, ez? Asko ibili beharko dogu eta!

Bajoiazan biak bidean zehar berba eta berba. Bederatzietarako San Lontxoko ermitan egozan, beste guztiekaz batera.

—Bueno, danok bagagoz, martxan jarriko gara, erdiak Eskuara joango gara eta beste erdiak Baltzolarra. Ia zorioneko otso hori baten batek hartzean dauen.

Orduak pasatu ziran. Danak batzeko ordua jarri eben eta etortordua zan. Baetozan taldeka, baina otsorik ez zan ageri. Danak etorriak ziran.

—Gaur ez dogu suerterik eduki. Otso hori gu baino zuhurragoa da. Bihar ordu berean hemen topatuko gozak!

Hau esan eta segituan joan ziran etxera, bazkaltzeko gogoz.

Etxera heldu ziran aurpegi triste harekin. Bazkaltzeko berakatz-zopa beroa eta okelea egin eban Unairen amak.

—Gaur San Blas da, eta arrastian elizara joan behar dogu. —esan eban amak.

—Bai, baina nik elizara joan aurretik ardiengana buelta bat egin gura neuke, —erantzun Unaik.

—Konforme, baina elizara sasoiz etorri gero!

Besteak ohean egozan Unai martxan jarri zane-rako. Txakurra eta morrala aldean ebazan.

Baina bidean, oraingoan, ez zan Artaun eta Oban fijatu, ez inguruko aretxetan, kezkatu rik egoan eta.

Baltzola inguruko baserrietan ez zan inor ageri, txakurrak eurak be kortan egozan.

Ardiak egoten ziran larrera heldu zan, baina han ez egoan ardirik. Unai txarrena pentsetan hasia zan eta, orduan, txakurra falta zala konturatu zan. Kobazuloko ahoan ikusi eban, lurrari hatz egiten. Korrika joan zan Unai be. Txakurrak kobara eroaten eban. Unaik koba nahiko ondo ezagutzen eban, baina ilunetan ez zan inoiz sartu.

«Beeeee» handi bat entzun eban eta bere ardien arraotsa. Unai orain arinago joian bere ardien bila.

Han egozan danak batera, kobazulo barruko

hotzaren kontra batuta. «Lagundu» entzun eban Unaik. Beheragotik etorren zarata zan. Norbait zuloan egoan. Morraletik soka atara eta gizonari bota eutson, baina ataratzeko tiratu aurretik,

—Nor zaran eta zertan ibili zaran hemen esan arte ez haut atarako. —esan eutson Unaik.

—Nik ardiak ilundu arte eduki nahi nebazan hemen, iluntzean inor konturatu barik etxera erroteko. —esan eban mutilak dardaraz eta bildurru itxuraz.

—Zulotik atarako haut, baina gero herrira joango haz segituan —erantzun Unaik.

—Bai, bai, atara hemendik.

Goian zanean konturatu zan Lapurketako mutila zala, tranpazale fama eukan familia batekoa. Eskuak ondo lotu eta herrira eroan eban. Ardiak, barriz, larrean itxi ebazan bedarra jaten.

Zortzi eta erdiak ziran herrira heldu zanerako. Meza amaitu barria zan eta danak, ardiak hiltzen ebazan ustezko otsoaz ari ziran berbaz.

—Hemen da zuen zorioneko otso hori. Gure ardiak ostuten topatu dot, —esan eban Unaik barreka eta egin ebanaz harro.

Danak harriturik, Unairi musuak emoten hasi ziran eta Unai herriko ausartena eta indartsuena sentitzen zan. Handik aurrera ardiengana joaten zan bakotxean, Baltzolako baserritarrak gailera, opil eta antzekoak emoten eutsiezan esker onez.